

Euskal Autonomi Elkartearen Xedapen Orokorrak

Disposiciones Generales del País Vasco

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

1184

1992/82 DEKRETUA, apirilaren 7ko, Euskadiko Autonomi Elkartearen Erakunde Administrazioaren jabetzapeko Herri Elkargoak sortzeko beharrezko diren agiri orokoren edukia ezartzen duena.

Maiatzaren 17ko 1/1988 Lege Dekretuaren Hirugarren Idazpuruko Laugarren Atalburuak, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolatze Erizpideen arloan indarra duten Erabakiei buruzkoabera, Euskadiko Autonomi Elkartearen Erakunde Administrazioaren barruan dauden Herri Elkargoak sortzeko eta arautze-ko araubide orokorra ezartzen du.

Bestalde, 1992.erako Euskadiko Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorrak onesten dituen urtarrilaren 28ko 1/1992 Legearen 6.4 atalak arautze hori osatu egiten du; izan ere, hark ezartzen duenez, erakunde-mailako izaiki hauen Aurrekontuak onartzeko eginbe-harreko lau urterako ekonomi egitamuak jaso beharko dituen zehaztasunak, hala nola Herri Elkargoak sortze-ko osatu beharko diren orotariko agiriak ere, arauz zehaztu beharko bait dira. Agiri horien artean egitasmoaren errentagarritasunaren azterketa, behar izango diren giza baliabideak zein tresnak eta aipatutako ekonomi egitamua sartu beharko dira nahitaez.

Arau hau, beraz, bitariko arautzat hartu beharra dago, esan nahi bait da: batetik berezkoa, Euskal Herri Administrazioaren Herri Elkargoen berezko lege-izaera arautzen duen heinean, eta bestetik tresna edo jokabideari dagokiona, Herri Elkargoen Aurrekontuak onesteko gaitasundun suertatzen denaren betebeharrak arautzen dituen heinean.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Sailburuak hala proposaturik, Jaurlaritzar Batzarrak 1992.eko apirilaren 7ko bilkuran aztertu eta onetsi ostean,

ERABAKI DUT:

1. atala.- Orohar ezartzekoaren arautzegiaren ondorioz biderapenari dagokionez eska daitezkeen bestelako betebehar edo eginbideak bazter utzi gabe, Herri Elkargoak sortu ahal izateko orohar osatu beharko den agiri-sorta, halaber ezartzen den zabaltasun eta edukigaz, ondoren zehätzuko dena da:

- a) Zabaltasun orokorreko azaltze-txostena.
- b) Lau urterako Ekonomi Egitamua.
- c) Egitasmoaren errentagarritasun eta zentzutasunaren azterketa.
- d) Beharrezko giza baliabideak eta tresnak.
- e) Sortze Dekretuaren egitasmoa eta, hala balego-kio, Elkargoa arautuko duten Estatutuen zirriborroa.

2. atala.- Aurreko ataleko a) hizkian aipatutako Txostenaren zabaltasun eta edukia ere hauetan zatituko da:

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

1184

DECRETO 82/1992, de 7 de abril, por el que se establece el contenido de la documentación general necesaria para la creación de Sociedades Públicas pertenecientes a la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Capítulo Cuarto del Título Tercero del Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, sobre Disposiciones vigentes en materia de Principios Ordenadores de la Hacienda General del país Vasco establece el régimen general de creación y regulación de las Sociedades Públicas que forman parte de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por su parte, el artículo 6.4 de la Ley 1/1992, de 28 de enero, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1992 viene a completar aquella regulación al establecer que reglamentariamente se determinarán los extremos que habrá de contener el plan económico a cuatro años necesario para la aprobación de los Presupuestos de estas entidades institucionales, así como la documentación de carácter general que habrá de confeccionarse para la creación de una Sociedad Pública, entre la que necesariamente habrá de incluirse un análisis de la rentabilidad del proyecto, los recursos humanos y materiales que hayan de requerirse y el citado plan económico.

La presente norma ha de entenderse, portanto, como una norma mixta, a saber: parte sustantiva, en cuanto regula el régimen jurídico propio de las Sociedades Públicas de la Administración Pública Vasca, y parte instrumental o procedimental, en cuanto regula requisitos para la aprobación de los Presupuestos de las Sociedades Públicas por parte de quién resulte competente para ello.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 7 de abril de 1992,

DISPONGO:

Artículo 1.- Con independencia de otros requisitos o trámites que proceduralmente puedan resultar exigibles en virtud de la normativa de general aplicación, la documentación que con carácter general habrá de confeccionarse para proveer la creación de una Sociedad Pública, con el alcance y contenido que asimismo se establece, será la que se enumera a continuación:

- a) Memoria descriptiva de alcance general.
 - b) Plan Económico a cuatro años.
 - c) Análisis de la rentabilidad y sensibilidad del proyecto.
 - d) Recursos humanos y materiales requeridos.
 - e) Proyecto de Decreto de creación y, en su caso, borrador de Estatutos por los que haya de regirse la Sociedad.
- Artículo 2.-** El alcance y contenido de la Memoria a que se refiere la letra a) del artículo anterior se desglosará, a su vez, en:

a) Empresa berriak ihardungo duen ekonomi inguruneari buruzko argipide orokorak honakook azalduz: dagokion ekonomi arloa, hala nola ekonomi eta empresa, gizarte eta kultura zein jokabide eta politikazko erizpideak, Euskadiko Autonomi Elkartaren herri-arloak hemen eskainitako ekonomi ihardunean ekinen esku hartza arrazoitzen dutenak, eta norbanako-arloak ihardun horretan esku ez hartzeko, hala baledi, suma daitezkeen arrazoiak ere, azalduz.

b) Elkargo berriaren egitasmoari buruzko argipideak honakook bilduz: Elkargo denez duen helburua, Euskadiko Autonomi Elkarteko Herri-arloak hartan izango duen partaidetza-chunekoa, gainerako akziodunen zehaztasunak eta haien partaidetza, hala nola erdiko epera zenbatzeko moduko helburuak eta erakuskari nola subjetiboak hala objektiboak helburu horiek zernolako heinean bete diren neurtzeko balio dutenak, iharduneko lehenengo lau urteetako haien aldizkotasunarekin batera.

3. atala.- 1.- Dekretu honetako 1. atalaren b) hizkian aipatutako lau urterako ekonomi egitamuaren zabaltasun eta edukia:

A) Agiri-sorta orokorra, eta bertan sarturik:

1.- Domu- eta Ustiatze-aurrekontuak, aurrekontua osatzeko arau teknikoen erizpideen arauera eta oraingo pezetetan egingo direnak, eta horiekin batera garrantzirik handieneko zatien azalpena baita erabilitorako zenbaketa oinarriak ere.

2.- Ohartemateko moduko Finantz Egoerak: Dirugarbiketak, Emaitzen Kontuak eta Dirubaltzen Sorburu eta Ezarpenaren Egoera.

3.- Euskadiko Autonomi Elkarteko Herri Administrazioaren ohartemandako ekarketak. Ustiaketaren mentsa betetzeko, agizko eskuraketen bidez, Euskadiko Herri Administrazioarengandik jasotzeko finanzbide-beharrak ezartzerakoan, diru-xahuketak dakartzaten gastuak besterik ez da kontutan izango, esan nahi bait da, kitapen eta horniketarako diru-izendapenei dagozkien gastuak bazterrean geratuko direla.

4.- Dirua ezartzeko egitasmoak. Mugiezineko gauzazko, gauzakoez besteko eta finanzbidezko ogasunean sartutako egitasmo bakoitzaren azalpen zehatzta, bertan gauzatze-epeak ere jasoz.

5.- Ohartemandako zorpetzea, haren kitapen-egitamua eta finantz gosteak barru.

6.- Behin-behingo emaitzak agizko eskuraketak kontutan izan gabe.

7.- Ohartemateko moduko cash-flowak, horiek emaitzatzat harturik eta kitapen zein horniketarako diru-izendapenengatiko gastuak aintzat hartzeko.

8.- Ohartemandako orobarneko aldea.

B) Aurreko A) hizkiko agirak osatzeko erizpideak eta horiekin batera elkargo berriaren egitasmoak oinarritzat dauzkan balizkoen eta aipaturiko egitasmoa osatzerakoan erabilitako ekonomi erizpideen zerrenda (kitapen eta zergapide politika, eta antzeko izaerako beste batzu).

2.- Arauz, atal honek aipaturiko ekonomi egitamua osatzeko eskatutako ekonomi datuak gauzatzeko bete beharreko formatoak onartu eta garatuko dira.

4. atala.- Egitasmoaren errentagarritasuna eta sensibilitatea azaleratzeko azterketa horrek, egitasmoaren

a) Información general sobre el entorno económico en que se va a desenvolver la actividad de la nueva empresa con una descripción del sector económico de referencia, así como de los criterios económico-empresariales, socio-culturales o estratégico-políticos que justifican la participación activa del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la actividad económica propuesta y las razones previsibles de la no participación del sector privado en dicha actividad si así fuera.

b) Información sobre el proyecto de la nueva sociedad que recoja su objeto social, el porcentaje de participación del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en ella, detalle del resto de los accionistas y su participación, así como objetivos cuantificables a medio plazo e indicadores tanto objetivos como subjetivos que sirvan para medir el grado de cumplimiento de los mismos, con su periodificación en los cuatro primeros años de actividad.

Artículo 3.- 1.- El alcance y contenido del plan económico a cuatro años a que se refiere la letra b) del artículo 1 de este Decreto abarcará:

A) Documentación General en la que se incluirá:

1.- Los presupuestos de Capital y de Explotación que se cumplimentarán según los criterios de las normas técnicas de elaboración del presupuesto y en peseñas corrientes con una descripción de las partidas más importantes así como las bases de cálculo utilizadas.

2.- Los Estados Financieros Previsionales: Balances, Cuentas de Resultados y Estados de Origen y Aplicación de Fondos.

3.- Aportaciones previstas de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. A la hora de establecer las necesidades de financiación vía transferencias corrientes a recibir de la Administración Pública de Euskadi para cubrir el déficit de explotación se han de tener en cuenta sólamente los gastos que originan desembolsos, es decir, no incluirán los gastos relativos a dotaciones para amortizaciones y provisiones.

4.- Proyectos de Inversión. Descripción detallada de cada proyecto incluido en el inmovilizado material, inmaterial y financiero que recoja, asimismo, plazos de ejecución.

5.- Endeudamiento previsto con su plan de amortización y costes financieros.

6.- Resultados previsionales sin considerar transferencias corrientes.

7.- Cash-flow previsionales, entendidos como resultados sin considerar los gastos por dotaciones netas para amortizaciones y provisiones.

8.- Margen bruto previsto.

B) Criterios de elaboración de la documentación de la letra A) anterior con una relación de las hipótesis sobre las que se sustenta el proyecto de la nueva sociedad y de los criterios económicos utilizados en la elaboración de dicho proyecto (política de amortizaciones, fiscal, y otros deanáloga naturaleza).

2.- Reglamentariamente se aprobarán y desarrollarán los formatos que hayan de cumplimentarse para plasmar los datos económicos exigidos para la elaboración del plan económico a que se refiere este artículo.

Artículo 4.- El análisis de la rentabilidad del proyecto y su sensibilidad recogerá, además de la rentabilidad

giza aldetiko errentagarritasunaz gainera, ekonomi aldetiko errentagarritasuna ere aztertuko du, hartarako zenbait erizpideri jarritu behar zaielarik, konparazio baterako: EGB-ri (Egungo Balio Garbia), EBT-ri (Errentagarritasunaren Barneko Tasa), inbertsioa berreskuratzeko denborari, eta baita horien gisako beste zenbaiti ere.

Berebat, egitasmoaren sentsibilitateari buruzko azterketa ere bilduko da; beti ere, ordea, egitasmoak hasieran zituen hipotesiez besteko bilakaeraak baltzu berriari ekarriko dionari esango diogu sentsibilitate, hau da, bata bestearen arteko erkaketa egiten duen azterketa, egitasmoaren oinarri ditugun hasierako hipotesi horiek zenbatean betetzen diren baitan dagoen emaitzari buruzkoa.

5. atala.- Eskatutako giza eta materiale baliabide horietan, langile eta saritan dagoen beharra ere jarrikoda, horren arrazoia ere bilduta, eta, baita, behar diren materialeen zerrenda ere, ohizkoak eta premiazkoak bereizita direla.

6. atala.- 1.- Berritan sortutako Herri-Baltzuen aurrekontuak, hau da, ekinean hasi direnko urteari buruzko aurrekontuak onartzeko agirietan, honako hauei buruzko informazioa bildu beharko da:

a) Herri-Baltzuren helburuak bilduta dauden egitarrauei (bat edo zenbait izanda ere) buruzkoa: egitarrauak, beti ere, Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokoretan sartuta daudenak.

b) Euskadiko Aurrekontu-Jaurpideko 31/1983 Legeko 31. atalak jarritako eran beren aurrekontuak onartzekotan dabiltsan Herri-Baltzuentzat zuzendutako diruizendapenik, geldialdian dagoenik, baden ala ez den.

c) Balegokio, Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontuetan izandako aldaketak, baltzu berria sortzeak ekarritakoak, bakoitzari dagokion jatorriko eta helburuko diru-atalak izendatuta eta baita horiek egitea ekarri duen lege-oinarria ere.

2.- Herri-Baltzu berriaren Aurrekontuak, Domu eta Ekoizpenari buruzkoak, baltzuren ekinaldia hasten den urterako onartu beharrekoa denak, Dekretu honekako 3. atalak aitaten duen lau urterako ekonomi-egitamuko ekoizpen eta domuari buruzko Aurrekontuen berbera izan behar du eta sortu zenetik urte horretako abenduaren 31 bitarteko bilduko da.

AZKEN XEDAPENAK

Aurrenekooa.- Ogasun eta Finantza Sailburuari Dekretu hau garatzeko behar diren xedapenak ematea baimentzea.

Bigarrena.- Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako hurrengo egunean izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko apirilak 7.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

social del proyecto, un análisis de su rentabilidad económica en base a criterios como VAN (Valor Actualizado Neto), TIR (Tasa Interna de Rendimiento), plazo de recuperación de la inversión, y otros de análoga naturaleza.

Se recogerá, asimismo, un análisis de la sensibilidad del proyecto entendida ésta como el efecto sobre los futuros resultados de la nueva sociedad originado por una diferente evolución de las hipótesis de partida del proyecto, esto es, un estudio comparativo relativo al resultado en función del porcentaje de cumplimiento de las hipótesis de partida en que se basa el proyecto.

Artículo 5.- Los recursos humanos y materiales requeridos incluirán una descripción justificada de las necesidades en materia de personal y de retribuciones previstas para cada uno de los primeros cuatro años de actividad, así como un detalle de los recursos materiales necesarios con separación entre los que sean corrientes y de capital.

Artículo 6.- 1.- La documentación relativa a la aprobación de los presupuestos de las Sociedades Públicas de nueva creación para el ejercicio en que den comienzo sus actividades deberán contener información relativa a:

a) Descripción del programa o programas incluidos en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en que queden recogidos los objetivos de la nueva Sociedad Pública.

b) Indicación de la existencia o no de créditos en suspenso con destino a la Sociedad Pública cuyo presupuesto se trata de aprobar en el sentido recogido en el artículo 31 de la Ley 31/1983, de Régimen Presupuestario de Euskadi.

c) Detalle, en su caso, de las modificaciones presupuestarias en los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi originadas por la creación de la nueva sociedad con referencia a las partidas de origen y destino respectivas y descripción de la base legal que las fundamenta.

2.- Los Presupuestos de Explotación y de Capital de la nueva Sociedad Pública que hayan de aprobarse para el ejercicio en que den comienzo las actividades de la misma habrán de coincidir con los Presupuestos de explotación y de capital del plan económico a cuatro años a que se ha hecho referencia en el artículo 3 de este Decreto y abarcarán el periodo comprendido entre su constitución y el 31 de diciembre de ese mismo año.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Se autoriza al Consejero de Hacienda y Finanzas para que dicte las disposiciones necesarias para el desarrollo de este Decreto.

Segunda.- El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de abril de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.